Augustin Zubikarai

XIII. ipuin rallya

2024-25 ikasturtea
ONDARROA

Bilduma ederra oparitu digute, bai horixe!
Sartu barrura, beldurrik gabe.
Ezetz jakin zer topako duzun!
Altxor bat aurkituko duzu orriotan,
herriko sortzaile gazteek eurek
gure esku ipini duten altxor galanta.

Aukera ederra da hau gure gazteak hobeto ezagutzeko:
abenturazaleak dira, maitasunak kezkatuta daude,
beldurrari nola aurre egin asmatu nahian ari dira,
euren burua ezagutu nahian barne borrokak
bizi dituzte eta herria maite dute.

Eskerrik asko rallyan parte hartu duzuen guztioi,
eta zorionak irabazleoi.
Jarraitu euskaraz sortzen.

URTZA ALKORTA ARRIZABALAGA
ONDARROAKO ALKATEA

IRINA ALKORTA BEDIALAUNETA
ONDARROAKO ALKATEORDEA

DBH 3-4

AURKIBIDEA

4 **FAMILIA APURTUA**
JUNE URRESTI IGLESIAS • JUNE ATXURRA BADIOLA

7 **MUSIKADUN AMETSA**
LAIA ITXASO ZUBIKARAI

10 **OSTADARRA BAINO HARATAGO**
MIKEL MARTINEZ DE AZAGRA MARTINEZ DE LUKO

15 **BASOA EDO FESTA?**
ENARA HORTA SOLABARRIETA • ANDER BADIOLA ALZIBAR

Augustin Zubikarai XIII. ipuin rallya

2024-2025 ikasturtea

Epaimahaikideak:
Leire Bilbao Barruetabeña
Ana Urkiza Ibaibarriaga

Antolatzailea:
ONDARROAKO UDALA

Babeslea:
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

JUNE URRESTI IGLESIAS • JUNE ATXURRA BADIOLA • Marrazkia, eurena.

Familia apurtua

Izaro inoiz ez zen maitatua sentitu bere etxean, horma horien artean zegoenean, tratu txarrak jasotzen zituelako bere aitaren partetik: bere aita alkholzalea zen, bera eta bere anaiak jaio baino lehenagotik. Aitak ez zuen lanik egiten eta etxe horretan sartzen zen diru guztia alkoholetan gastatzen zuen. Amak egunero hamabi ordu lan egiten zituen eta anaia zaharrenak ere lan egiten zuen, diru beharraren ondorioz. Izarok askotan etxean gelditu behar izaten zuen bere anaia txikiak zaintzen. Aritz anai nagusia eta Maitane eta Iker bikiak.

Anai-arrebek gorrotatu egiten zuten aita, baina ez zuten ulertzen euren amak horren aurrean ez zuela ezer egiten, horrek min handiagoa ematen zien. Aita mozkortuta zegoenean, normalean bere seme-alabak jotzen zituen, bere anaia zaharra egoten zen babesteko, baina arratsalde horretan, lanean zegoen. Izarok ez zuen gainditu azterketa bat eta bere aita ohartu zenean, sutan jarri zen eta ez zuen izan aukera gehiagorik bere gelan preso gelditu baino. Aitak ziztu-bizian atea irekitzea lortu zuen eta sekulako jipoia eman zion, zorabiatu eta konortea galdu zuen arte.

F
ALCOH

Hurrengo egunean, ospitaleko ohe batean esnatu zen, hainbat makinari lotuta, ondoan, bere anaia nagusia, eta ezagutzen ez zuen emakume bat. Anaiak esan zion euren gurasoei kustodia kendu zietela eta emakume horren etxera joango zirela familiarekin istilua konpondu arte. Osatu zenean, psikologoarengana joan zen eta psikologoak esan zion bere amarekin ez zela haserretu behar, eta amorru hori kentzeko onena bere amarekin gelditzea zela.

Psikologoarekin eztabaidatutakoan, bere burua gai ikusi zuen gelditzeko eta egun batzuk geroago topo egin zuten. Amari Izaro ikusitakoan, malko bat erori zitzaion eta Izaro ez zen izan gai beregana joateko. Dena dela, berriro ere topo egin eta orduan jakin ahal izan zuen ez zuela nahita egin, ez zela bere amaren errua, ama ere biktima bat zela, horrela ulertu zuen bere ama isilpean geratu izana.

Musikadun ametsa

Egunero amets berberarekin esnatzen zen, bera txikia zeneko oroitzapen bat, bere amarekin dantzan ageri zena. Ama bi urte zituela hil zitzaion eta utzi zion gauza bakarra balleteko oinetako gorri batzuk ziren. Maia, umezurtzegian bizi zen, goizero esnatu ondoren, amaren oinetakoak jantzi eta teilatura igotzen zen dantzan egitera, bere amets handiena balleteko dantzaria izatea zen.

Goiz argi batean, oinetakoak ateratzeaz batera, kaxaren alde batean, irudi bat zegoela ohartu zen. Argazkiari so, Pariseko opera aretoa zela deskubritu zuen.

Gau hartan, Maiak motxila egin eta bertatik ihes egin zuen, dantzaria izateko ametsa betetzeko. Trenera igo eta Parisera heldu zenerako, goiz zen, baina antzokia aurkitu zuenerako gaua heldu zen. Aretora sartu zenean, bertako garbitzailearekin topo egin zuen eta bere bizitza kontatutakoan, garbitzaileak lana eman zion. Maia garbitzen ari zela aretoko agintaria albotik pasa eta baldako ur zikina es-


6
Paris

kilaretatik behera bota zion. Dena dela, garbitzailearekin berriro ere topo egin eta orduan jakin zuen ez zuela nahita egin. Maiak gertatu zena kontatuta, biek batera gau osoa garbitzen eman zuten. Hurrengo goizean, ohar bat heldu zen. Kamile Leo, Pariseko jatetxe famatu bateko jabearen alabarentzat zen eta balleteko klaseetara joateko gonbidapena. Orduan, Maiak ideia bikain bat izan zuen, Kamile Leorenak egitea eta klaseetara joatea.

Biharamunean, Maia balleteko klaseetara joan zen, baina argi zegoen ez zuela teknikarik dantzan egiteko, eta horregatik, garbitzaileak goizero balleteko teknika erakusten zion. Aste batzuen buruan, berezko Kamile Leo dantza eskolara joan zen eta Maiaren gezurra deskubritu zuten.

Baina Maia oso dantzari ona zenez, klaseetan jarraitzeko aukera eman zioten. Handik egun batzuetara, Kamileren kontra lehiaketa bat irabazi zuen eta Rosita Maurinekin, balleteko dantzari famatuenetariko batekin, musikal batean parte hartzea lortu zuen. Horrela, Maia dantzari famatu bilakatu zen, bere ametsa gauzatuz.

MIKEL MARTINEZ DE AZAGRA MARTINEZ DE LUKO • Marrazkia, berarena.

Ostadarra baino haratago

Dorothyk «sentimenduen entsalada» bat sentitu zuen Ozetik buel-tatu zen egunean. Alde batetik, pozik sentitzen zen bizi zuen es-perientzia ikaragarriaren ondorioz, eta beste alde batetik, errudun sentitzen zen, pentsatzen zuelako zikloiaren egunean, bere familia ba-karrik utzi zuela.

Dorothyk behin eta berriro eskatu zion barkatzeko Izeba Emmari, eta honek «Bai, laztana, lasai egon» esanez erantzuten zion beti. Egun hartan Dorothy bueltatxo bat ematera joan zen Kansasko kaleak ikusi nahian. Kaleak guztiz zapuztuta zeuden zikloiaren ondorioz. Denborak aurrera egin ahala, Dorothy geroz eta errudunago sentitzen zen, bere buruari honelako galderak eginez:

–Eta… ni izan banaiz zikloi horren arduraduna…?

–Eta sorgin gaizto bat banaiz…? Azkenean, etxe baten gainera igo eta bertatik beste mundu batera joan daitezkeen pertsonaiak, ez al dira ba sorginak…? Ez dago zalantzarik, ni neu naiz desastre haren ar-duraduna!

Geroago, dena galdu zuten pertsonekin topo egin zuen Dorothyk. Haien testigantzak entzutean negarrez hasten zen. «Zelako pertsona gaiztoa naizen!», esaten zuen behin eta berriro. Bere etxean hamabost urtez lan egindako pertsona batekin topo egin zuen etxerako bidean. Dorothyk bere sorginkeriaren hipotesia kontatu zion. Honek lasaitzeko gomendatu zion. Dorothyk bidean aurkitu zituen beste lagun batzuekin ere berba egin zuen, eta hauek ere aurreko langileak esan zion berdina esan zioten: ez zela inondik inora bere errua izan. Dena dela, berriro ere topo egin eta orduan jakin ahal izan zuen ez zuela nahita egin. Dorothyk pentsatu zuen berak ez zuela nahi inork minik hartzerik.

Horregatik, pentsakeraz aldatzen joan zen: orain bazekien gertatutakoa ez zela bere errua eta pentsatzen zuen zerbait egin behar zuela. Bere bizi-lagunak laguntzeko asmo ikaragarria sentitu zuen bat-batean.

Hurrengo urteak oso onak izan ziren Dorothyren familiarentzako. Kansas Cityko familiak asko pobretu ziren zikloiaren apurketaren ondoren. Honek eragin zuen familia guztiak Dorothyren baserrira erostera joatea; izan ere, Dorothyren senidekoek prezio justuak jartzen zizkieten oinarrizko produktuei. Urteak aurrera joan ahala, Dorothyren baserria geroz eta ezagunagoa egin zen.

1948ko uztailaren 5ean Dorothyri osaba Henry hil zitzaion eta bi urte geroago, Izeba Emma. Dorothyk asko sentitu zuen bere «gurasoak» galtzea, baina berak bazekien aurrera jarraitu behar zuela negozioarekin. 1953an, Dorothyk janari-enpresa bat sortu zuen «Henry and Emma» izenarekin. Dorothyk irabazten zuen diruaren erdia, borondatez, Kansaseko Udaletxera eramaten zuen bertako biztanleen bizitza hobetzeko.

Handik gutxira, Dorothy Estatu Batuetako enpresaburu garrantzitsu bihurtu zen, «H. and E.» enpresa EEBB osoan saltzen hasi zelako: Washington DC, Ohio, New York, Pensilvanya, Nevada… Mundu guztiak hitz egiten zuen Kansaseko Dorothy enpresaburuari buruz!

1957ko uztailaren 7a egun garrantzitsua izan zen Dorothyren bizitzarako. Goiz hartan, bere 33. pisuko bulegora heldu zenean, gutun bat ikusi zuen bere mahai gainean. Gutun hori EEBBko presidentearena zen. Gutun horren bitartez, presidenteak bere etxera gonbidatzen zuen; izan ere, Dorothy ezagutzeko gogo ikaragarria zeukan.

Astebete geroago, han zen Dorothy Kansaskoa, EEBBko presidentearen zain, EEBBko Etxe Zuriko Biltzar Bulegoan. Hamar minutu geroago, ate nagusiak ireki ziren eta Dorothyk ezin izan zuen sinetsi ikusi zuena: Estatu Batuetako presidentea, Ozeko Magoa zen. Dorothyk besarkada handia eman zion orduan. Biak asko poztu ziren! Presidenteak zera esan zion:

–Dorothy, ikusten duzun moduan, ni jadanik zaharra naiz. Medikuek diote laister hilgo naizela eta oinordekoa behar dudala. Ekonomia arloan duzun domeinua eta zure bihotz ona ikusita, zu zeu izatea nahiko nuke Estatu Batuetako hurrengo presidentea. Ziur nago zurekin hauteskundeak irabaziko ditugula–.Dorothyk esan zion pentsatuko zuela, eta besarkada bat emanez agurtu zuen presidentea.

Hurrengo egunetan, berriak irten ziren Estatu Batuetako egunkari guztietan: Dorothy for president!

Dorothy lasai eta pentsakor zegoen bere bulegoko mahaian jarrita. Asko pentsatuta ondorengoa esan zuen: «Badut!». Pentsatu zuen Ozeko Magoak proposatu zion eskaeraren erantzuna. Ez zuen segundu bat ere itxaron nahiz eta presidenteari deitzea pentsatu zuen bere erabakia adierazteko, baina dei hori ez zen inoiz gertatu.

Telefonoa hartu zuenean, gizon bat sartu zen bere 33. pisuko bulegoan. «Egunon, presidente anderea!» esanez agurtu zuen.

Momentu hartan, bere poltsikotik pistola atera zuen gizon hark eta ezer gehiago esan gabe bi tiro sartu zizkion Dorothyri sabelean. Gizonak korrika batean alde egin zuen bulegotik, Dorothy lurrean utziz. Dorothy «Kansasekoa» hil egin zen 1957ko uztailaren 20an.

Enterrura milaka pertsona joan ziren. EEBBko presidentea eta ministroak, Kansaseko alkatea eta zinegotziak, bertako biztanleak, beste enpresaburuak… Denak Dorothy agurtzeko. Bere hilobian «Ostadarra baino haratago» mezua idatzi zuten.

Dorothy hil egin zen eta orain bere osabarekin eta izebarakin dago zeruan, leku hartan, ostadarra baino haratago.

ENARA HORTA SOLABARRIETA • ANDER BADIOLA ALZIBAR
Marrazkia, eurena.

Basoa edo festa?

Kaixo, ni Ana Bakea naiz, eta ez dakit zer egiten dudan hemen. Lagunek behartu naute udaleku honetara etortzen; bestela, egun guztiak pasatuko nituen etxean sartuta «Zer garelakoan, ixiltasuna?» telesaila ikusten. Amak beti esaten dit gazteegia naizela gauza horiek ikusteko, baina jadanik 14 urte ditut. Baina beno, ez dut guztiz txarto pasatu.

Atzo iritsi ginen Pasaiara; oso toki polita iruditu zitzaidan, egia esan. Kanpamendura iritsi bezain laster, nire motxila desegin nuen: grapagailu bat, txikleak, kaktus bat, Murtziako bandera… badakizue, betikoa.

Etxolan ni eta nire lagun taldea ginen: Anna, Txelo, Lola, Leti, Idoia, Trixa, Maite eta Bitor. Arratsaldea libre utzi ziguten gure etxolan gauzak utzi eta ondo pasatzeko.

Afaldu eta gero ere bertara itzuli ginen, eta bertan egon ginen musika entzuten eta hitz egiten. Asperturik, lotara nindoan atea jo zutenean.

–Lotara, nire txakurkumeak! –esan zuen ahots leunez Lulu monitoreak –Bihar Musikaldira joango gara eta!

–Ados, Lulu –erantzun genuen denok batera.

Bakoitza bere ohera zihoan, Trixak plan bat proposatu zuenean:

–Goazen mendira, udalekutik kanpo! –esan zuen gogoz.

–Bai! Ideia ona! –erantzun zion Txelok.

–Aizue, gaua iluna da eta Lulu monitoreak oheratzeko esan digu –moztu zuen plana Lolak.

–Ixildu zaitez behingoz, Lola! –oihu egin zion Letik.

–Goazen, neskak! –esan nuen nik, abentura nahian.

Segundu batzuk geroago, gure ibilidea hasi genuen. Basora sartu, eta inguruko argi guztiak itzali ziren bat-batean.

–Beldur naiz! –oihukatu zuen Lolak.

–Ixiltzeko esan dizut! –oihukatu zion ozenago Letik.

Eztabaidan zeuden bitartean, musika ezezaguna entzun nuen.

–Ixo! Enzuten al duzue hori? –esan nuen.

–Bai… Basotik dator! –antzeman zuen Maitek.

Kantua gero eta ozenago entzuten zen. Zuhaitzak kantuaren errit-mora mugitzen hasi ziren, baita Leti ere, besteak ikaratuta geunden bi-tartean.

–Egon momentutxo bat –eskatu zigun Annak.

Bere mugikorra atera eta «Txazam» aplikazioa ireki zuen. Mugi-korrak abestia lehenbailen identifikatu zuen: Lady Gagaren «Judas» zen!

«Judas, Juda-a-as, Judas, Gaga»

Lurra ere dardaraka hasi zen. Ikaratuta geunden, musika nondik zetorren galdezka. Letik dantzan jarraitzen zuen.

Bat-batean, izpi bat agertu zen zuhaitzen artean. Erraldoia zen. Izpia dantzan zegoela antzeman genuen.

–Basajaun! –oihukatu zuen Bitorrek.

Korrika hasi ginen denok. Baina, gelditu egin ginen Letiren ahotsa entzutean.

–Kaixo, Basajaun! –agurtu zuen Letik poz-pozik –Zuek, begi-ratu, «voguing» egiten ari da!

Leti bertan utzi eta udalekura bueltatu ginen, beldurturik. Etxolan giltzapetu eta atzera begiratu genuen: hamarnaka Basajaun txiki «voguing» egiten.

Ohe gainera igo ginen, ikara eta jakin-minez beterik. Bat-batean Leti agertu zen.

–Lasai denok! Hori egin behar dute bizirik irauteko. Bizi-funtzio bat da! Digestioa egin ezin dutenez, nolabait jan egin behar dute! –azaldu zigun Letik.

Ohetik jeitsi ginen denok, Lola izan ezik. Beldur zen oraindik. Dena dela, berriro topo egin eta orduan jakin ahal izan zuen ez zuela nahita egin. Basajaun izaki ona zela.

Halako batean, norbaitek atea jo zuen.

–Zer, ezagutu duzue nire lagun Basajaun? –galdetu zigun Luluk. –Goazen, Basajaunak!

Eta horrela, Lulu eta Basajaun guztiak etxolatik irten ziren, «voguing» egiten, noski.

–Itxaron momentu bat... –esan nuen. –Zergaitik zegoen Lulu ere «voguing» egiten? Basajauna izango al da bera ere?